



ORIOKO UDALA



AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2019ko martxoaren 7a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:34 **BUKATZEKO ORDUA:** 19:56

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

Zinegotziak

Angel del Hoyo Bravo, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Bixente Lasa Karrikaburu, Gotzon Igoa Agirrezabal, Aizpea Ubegun Manterola, Jose Angel Iparraguirre Alberdi, Iñigo Arruti Agirre eta Ana Priede Merchan.

Idazkaria

Jon Carrera Jauregi

Lourdes Salsamendi Goñi zinegotziak (EAJ) adierazi du ezin zuela etorri eta, beraz, ez du bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda

- 1.- Otsailaren 18ko 86/2019 alkate-dekretuaren berri ematea. Dekretu horren bidez 1/2019 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea onartzen da, kreditua txertatzeko modalitatean.
- 2.- Onartzea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 2/2019 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.
- 3.- Onartzea, egoki bada, 1/2019 zenbakidun konpromiso-kredituen espedientea.
- 4.- Onartzea, egoki bada, deuseztatzea 2001-2009ko erresulten ordainagiriak.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Arraunetxeko areto nagusia erabiltzeko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketa.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Oriko Udalaren eta Oriko Arraunketa Elkartearen arteko lankidetzaz-hitzarmena 2019 eta 2020 urteetarako.
- 7.- Onartzea, egoki bada, udal-langileen ordainsariaren igoera 2019rako eta, baita ere, kargua dedikazio osoarekin edo partzialarekin egiten duten udal-korporaziokideen igoera.

Esan-eginak

1.- OTSAILAREN 18KO 86/2019 ALKATE-DEKRETUAREN BERRI EMATEA. DEKRETU HORREN BIDEZ 1/2019 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEN DA, KREDITUA TXERTATZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Otsailaren 18ko 86/2019 alkate-dekretuaren bidez onartutako 1/2019 zenbakidun espedientea kreditua txertatzeko modalitatean egina dago eta 1.777.812,13 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 2/2019 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak Udalaren 2019ko aurrekontu propioari dagokion 2/2019 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientearen berri jakiten du. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 1.328.522 euroko zenbatekoa du.



Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2019ko martxoaren 1ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2019ko aurrekontu propioari dagokion 2/2019 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean eginga dago eta 1.328.522 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza–Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera-erregistroan, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditua aldatzeko espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 1/2019 ZENBAKIDUN KONPROMISO-KREDITUEN ESPEDIENTEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 1/2019 zenbakidun konpromiso-kredituen espedienteak 1.138.710 euroko kopurua du, honela banatuta: 916.854 euro Udalaren 2019ko aurrekontu propioari dagozkio; eta 221.856 euro, berriz, Udalaren 2020ko aurrekontu propioari. Konpromiso-kreditu horiek diruzaintzako gerakinaren kargura finantzatzeko dira 850.399 euroko kopuruarekin.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2019ko martxoaren 1ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA 1/2019 zenbakidun konpromiso-kredituen espedienteari. Espedienteak 1.138.710 euroko kopurua du, honela banatuta: 916.854 euro Udalaren 2019ko aurrekontu propioari dagozkio; eta 221.856 euro, berriz, Udalaren 2020ko aurrekontu propioari. Konpromiso-kreditu horiek diruzaintzako gerakinaren kargura finantzatuko dira 850.399 euroko kopuruarekin.

2.- Espedientea JENDAURREAN JARTZEA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Aginduan ezarritakoa betez, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Kontu-hartzailletza departamentua.

b) Agiriak aztertu eta erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

c) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera-erregistroa. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

d) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamaziorik aurkeztzen ez bada, dokumentua behin betikoz onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, DEUSEZTATZEA 2001-2009KO ERRESULTEN ORDAINAGIRIAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Proposatzen dena da deuseztatzea 2001-2009ko erresulten ordainagiriak, 92.287,26 euroko zenbatekoa dutenak.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2019ko martxoaren 1ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA deuseztatzea 2001-2009ko erresulten ordainagiriak, 92.287,26 euroko zenbatekoa dutenak.



5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ARRAUNETXEKO ARETO NAGUSIA ERABILTZEKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2019ko martxoaren 1ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Arraunetxeko areto nagusia erabiltzeko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketari.

2.- Erabaki hau eta hasitako espedientea jendaurrean jartzen dira, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan iragarkiak argitaratuz, honako arauen arabera:

a) Ikusgai dauden tokia: Udaletxeko idazkaritzan.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, bulego orduetan.

c) Erreklamazioa aurkeztu dezaketenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteko lekua: Udaletxeko sarrera-erregistroa. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakia eta aldatutako ordenantza behin betikoa bilakatuko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN ETA ORIOKO ARRAUNKETA ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA 2019 ETA 2020 URTEETARAKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2019ko martxoaren 1ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldua (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ), Bello (EAJ), Iparragirre (ORAIN) eta Arruti (ORAIN), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Iribar (EH Bildu), Lasa (EH Bildu), Igoa (EH Bildu), Ubegun (EH Bildu) eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

1.- ONARTZEA Oriko Udalaren eta Oriko Arraunketa Elkartearen arteko lankidetza-hitzarmena 2019 eta 2020 urteetarako.

2.- AHALMENA EMATEA Jose Angel Zaldua Iparragirre alkateari lankidetza-hitzarmen hori sinatzeko Oriko Udalaren izenean.

Emandako botoa azaltzeko, Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoari ondo iruditzen zaiola Arraun Elkarteari 2020an 5.000 euro gehiago ematea; baina kontrako botoa eman duela ez daudelako ados 2019an 10.000 euro gehiago ematearekin (5.000 euro, 2019. urteari dagozkionak; eta beste 5.000 euro, 2018. urteari dagozkionak). Adierazten du 10.000 euro gehiagoko kopuru hori ez dela adostu udal-taldearen artean eta bere talde politikoaren proposamena hau dela: bi urteetan, bai 2019an eta bai 2020an, dirulaguntza berbera ematea Arraun Elkarteari: 82.830 euro, urte bakoitzeko.

Ana Priede zinegotziak hartzen du hitza, PSE-EE-PSOEren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak lankidetza-hitzarmena onartzearen kontrako botoa eman duela honako arrazoiengatik:

- Ez dago ados hitzarmenean ezarri diren gehikuntzekin (10.000 euro gehiago, 2019an; eta 5.000 euro gehiago, 2020an), zeren eta dagoeneko aurreikusita baitago 5.000 euroko dirulaguntza bat urte bakoitzerako, garagardo-azoka antolatzeko gastuak finantzatzeko. Bere ustez, dirulaguntza horrela gehitzea *agravio comparativo* bat da herriko beste kirol elkarteekiko.
- Ez dago ados lankidetza-hitzarmena bi urterako planteatzearekin, kontuan hartu behar baita agintaldi hau 2019ko maiatzean bukatuko dela eta 2020an beste agintaldi bat izango dela. Bere ustez, lankidetza-hitzarmena 2019rako bakarrik sinatu behar zen; eta 10.000 euroko gehikuntza egin gabe.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-LANGILEEN ORDAINSARIAREN IGOERA 2019RAKO ETA, BAITA ERE, KARGUA DEDIKAZIO OSOAREKIN EDO PARTZIALAREKIN EGITEN DUTEN UDAL-KORPORAZIOKIDEEN IGOERA.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Igoera horren oinarrian sektore publikoko ordainsarien alorrean premiazko neurriak onartzen dituen abenduaren 21eko 24/2018 Legegintzako Errege Dekretuaren 3.2 artikuluan ezarritakoa dago.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2019ko martxoaren 1ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udal-langileen ordainsariaren igoera 2019rako eta, baita ere, kargua dedikazio osoarekin edo partzialarekin egiten duten udal-korporazio kideen igoera. Igoera honela aplikatuko da:

- %2,25 igoko dira 2018ko abenduaren 31n indarrean dauden soldatak, 2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko ekainaren 30era bitartean, udako aparteko ordainsaria barne.
- Horrez gain, 2018ko Barne Produktu Gordina (BPG) prezio konstanteetan %2,5era iristen bada, edo ehuneko hori gainditzen badu, ordainsariak beste %0,25 igoko dira 2019ko uztailaren 1etik aurrera. BPGa %2,5 baino gutxiago handitzen bada, ordainsarien gehikuntza modu proportzionalen aplikatuko da, era honetara:
 - 2,1eko BPGa: %2,30
 - 2,2ko BPGa: %2,35
 - 2,3ko BPGa: %2,40
 - 2,4ko BPGa: %2,45

Gai-zerrendatik kanpo, udalbatzarrak ondoko erabakia hartu du, aldez aurretik, **AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz], urgentziazkotzat jo ondoren:

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN ETA EUSKO JAURLARITZAKO INGURUMENA, LURRALDE ANTOLAMENDUA ETA ETXE BIZITZA SAILAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, ANIBARKO PORTUAN BIZITOKI DOTAZIONALAK SUSTATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Lankidetza-hitzarmenaren xedea da ahalbidetzea bizitoki dotazionalak sustatzea Orioko 4.1.13 eremuko 1. partzelan –Anibarko Portua–.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza eta Ingurumena batzorde informatzaileak 2018ko irailaren 7an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA Orioko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumena, Lurralde Antolamendua eta Etxebizitza Sailaren arteko lankidetza-hitzarmena, Anibarko Portuan bizitoki dotazionalak sustatzeko.

2.- AHALMENA EMATEA Jose Angel Zaldua Iparraguirre alkateari lankidetza-hitzarmen hori sinatzeko Orioko Udalaren izenean.

Horrenbestez, udalbatzarrerera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,